
EKAINAK
27-28-29
JUIN
ARBERATZE
-ZILHEKOA
EHZ
LURRAREN
HERRITMOA
berria
ARGIA
bixoko
TOKIKOM
BADOK
ahötsa_naiz:
bai

# LURRAREN HERRITMOA

Iaz, Arberatzen instalatu zen EHZ. Festibala Amikuze eskualdera joan zen euskal kulturarendako eta herri dinamikendako emankorrak diren lurretan haziak ereitera. Lurra bezala, EHZ aberasten da eta etengabeko kimu hazkuntzan denez, Irisarritik Arberatzera joan zen festibalaren eta herri baten erritmoak uztartzera.

Kulturgintzaren kapitalizazioa eta pribatizazio nehoiz baino bortitzagoa den garaiotan, EHZ-k landuriko lurrak emankor izaten segitzen du, landatzen den herrian dinamikak bultzatzen baititu tokiko erritmora egokituz, Amikuze eskualdeko biztanleekin batera.

Ziklo desberdinez osatu da EHZ. Funtsean, urte anitzez loratuz joan, eta lekuz aldatu behar izan du barnebiltzen dituen antolaketa talde eta laguntzaileen belaunaldien joan-jinen erritmora. Lurrez elikatuz eta soroak irauliz eraiki da urteetan zehar, salgai izan gabe.

Makrofestibaletatik haratago, hemengo (h)erritmotik eraikitzen da EHZ. Lurra denen ondasuna den heinean, EHZ-k ere hala izan nahi du, herri batez osatua eta herriaren erritmoak markatua, produktu kultural merkantilizatuen erritmo frenetiko eta esponentzialetatik kanpo.

Arrosatik Arberatzera, belaunaldiz belaunaldi milaka laguntzailek landatu dute EHZ, elkar trukea, auzolana eta autogestioa oinarri harturik.

Lurraren (h)erritmoari esker ereinen dugu Euskal Herria Zuzenean!



# LURRAREN HERRITMOA

**L'année dernière le festival EHZ s'est installé pour la première fois à Arberatze pour continuer à semer les graines de sa dynamique culturelle sur le territoire d'Amikuze. Le festival aspire ainsi, humblement, à nourrir et à apporter sa pierre au tissu associatif local qui fait vivre la culture basque, au-delà du folklore.**

**Thème de cette nouvelle édition, la terre symbolise pour EHZ un bien commun qui, si elle est bien entretenu, offre les conditions pour des rencontres fertiles et nourrissantes. A ce même titre, si l'Euskal Herri fait aujourd'hui face à un phénomène de marchandisation et de dévoiement des symboles de sa culture, EHZ considère plutôt la culture basque comme un bien commun inaliénable, vecteur de liens sociaux.**

**Ainsi, dans un contexte socio-économique où la tendance est à la capitalisation et la privatisation de la culture dans son sens large, EHZ reste fidèle à son modèle basé sur l'autogestion, l'entraide et la solidarité. C'est donc loin des macro festivals qu'EHZ continue de tracer son sillon.**

**Depuis 1996, c'est au rythme de la terre que des milliers de bénévoles et militants construisent Euskal Herria Zuzenean!**



OSTIRALA 06/27

# MASKAK




**Maskak Itsasu eta Bidarrai artean sortu den musika proiektu berri bat da. 2024eko otsailean haien lehen lan luzea kaleratu zuten: "Buruz buru. Pop Rock Electro estiloak nahasiz, atmosfera energikoa eta melankolikoa sortu du taldeak. Urte-batez, beraien lana hainbat eszenatokitan presentatu ahal izan dute.**

Maskak est un nouveau projet musical entre Itsasu et Bidarray. En février 2024, ils ont sorti leur premier album intitulé « Buruz buru ». En mélangeant les styles Pop, Rock et Electro, le groupe a créé une atmosphère à la fois énergique et mélancolique. Pendant un an, ils ont pu présenter leur travail sur de nombreuses scènes.

# BENGO

**'Bengo' izenaren atzean Aitor Bengoetxea musikaria dago. Musikalki, genero urbanokoa da, eta, kantatzeaz gain, break dantzaria ere bada. 2024ko azaroan 'Belharra' bere bigarren diskoa argitaratu zuen. 2025ean 'Belharra Tour' izeneko biraren karietara EHZn arituko da.**

Derrière le groupe Bengo se cache le musicien Aitor Bengoetxea. S'inspirant du genre urbain, il chante et danse du breakdance. En 2024 il a sorti son deuxième disque intitulé 'Belharra', qu'il présentera à EHZ.




# AUHEN




**ØDEI raplariak beste bost musikarirekin sortutako taldea da Auhen. Rapa estilo nagusitzat eta abiapuntutzat harturik, estetika eta kolore desberdinak ukitzen ditu proposamen berri honek. Gaur egungo rap estetika ezberdinak ukitzen baditu ere, taldeko kide bakoitzaren ukitua nabari da sorkuntzetan, eta zentzu horretan, abesti lasaietatik pasarte dinamikoagoetara, kolore ugariko zuzenekoa osatu du taldeak.**

ØDEI, le rappeur, forme le groupe AUHEN avec cinq autres musiciens. Prenant le rap comme point de départ et d'ancrage principal, cette nouvelle proposition embrasse différentes esthétiques et couleurs. Le groupe a créé des chansons composées de messages incisifs et de performances live, construisant un univers musical au-delà du rap.



**OSTIRALA 06/27**




## W!IZARD

**Oholtzak astintzen dituen Bordeleko post-punk estiloko taldea da W!ZARD. Hirukotea rock anglo-saxoiaren eraginez inspiratzen da zuzenezko indartsu baten proposatzeko. 2024an haien lehen disko luzea kaleratu zuten,'Not Good Enough" izenekoa.**

Le groupe de post-punk bordelais W!ZARD fait vibrer les scènes. Il est connu et reconnu tout aussi bien pour son explosivité que sa colère. Le trio est principalement influencé par le rock anglo-saxon entre le post-punk mainstream d'Idles, Shame, ou encore Ditz et Gillaband. En 2024 ils ont sorti leur premier album intitulé 'Not Good Enough'.

## TRAPTRAX




**2022an, Catach festibalaren 7. edizioan elkartu ziren Txomin Dhers eta Bixente Etxegarai, Pierre Loustaunau eta Peio Erramouspe, baita Youri Fernandez artista plastikoa ere. Konposaketa progresiboaren eta txalapartaren berezitasunen inguruan kontzertu bat asmatu zuten. Horren ondotik, Catach elkarteak, taldearen kideekin ikusgarri audio-bisual-tekno-tradizional bat ekoiztu dute: Traptrax.**

A l'occasion de la 7éme édition du Catach Festival, le 10 juin 2022, nous avons réuni les musiciens Txomin Dhers et Bixente Etchegaray (txalaparta), Pierre Loustaunau et Peio Erramouspe (synthétiseurs analogiques) ainsi que l'artiste plasticien Youri Fernandez (scénographie interactive) autour d'un projet de concert « improvisé » mettant en avant la composition progressive et les particularités de la txalaparta. A la suite de ce concert l'association Catach, avec les membres du groupe, ont entrepris de lancer la production d'un spectacle audio-visuel-techno-traditionnel : Txaptrax.

## ZETKIN

**ZETKIN Ipar Euskal Herriko punk feminista taldea da. 1980ko hamarkadatik gaur egunerainoko punk eszena alternatiboan inspiratua, taldeak riot punk kantuak sortzen ditu. Hitzak, batez ere politikoak eta engaiatuak dira, jendarteko gaiak jorratuz: feminismoa, genero-identitateak, indarkeria matxista, ahizpatasuna, klase-borroka, etab.**
**Taldeak *riot girl* eta *"more women on stage and back stage"* mugimenduaren baitan kokatzen du bere burua. Emazteak musikaren munduan agerian ezartzeko xedea dute.**




ZETKIN est un groupe de punk féministe du pays basque nord. Inspiré de la scène punk alternative des année 80 à nos jours, le groupe compose ses propres morceaux. Les paroles, principalement en euskara, se veulent politiques et engagées, en traitant divers sujets de société: le féminisme, les violences conjugales, les identités de genre, la lutte des classes etc.




## PANGEA POP

**Pangea Pop 2024an sorturiko indie rock talde bat da. Haizek, Anttonek, Bettik, Enekok eta Txominek dute bostkotea osatzen.**
**Konposaketa minimalistak eta intimoak proposatzen dituzte, Lou Reed maisuaren filosofian oinarriturik : « Hiru akordioak eta egia. »**

Pangea Pop est un groupe d'indie rock formé en 2024, à Ibardin-Les-bains, autour de Haize (Chant, Clavier), Antton (Chant, guitare), Betti (Basse), Eneko ( Guitare) et Txomin (Batterie). Des compositions minimalistes et épurées qui suivent les mots d'ordre du grand Lou Reed : « trois accords et la vérité ».

eta beste hainbat talde...
Polylogue From Sila Acidulant
Papa cumbia Miss Bee & The Bullfrogs

LARUNBATA 06/28

# OLAIA INZIARTE




**Olaia Inziarte talde nafarra « Zerrautsa » izeneko bere bigarren diskoarekin itzuli da. Lan honetan, ikuspegi pertsonaletik haratago doan elkarrizketa sakon bat eraikitzen du, musikaren munduko dinamikak eta munduaren begirada kritiko bat uztartuz.**

La chanteuse navarraise Olaia Inziarte est de retour avec son deuxième album intitulé Zerrautsa. Dans ce travail, elle construit un dialogue profond qui va au-delà d'une vision personnelle, en mêlant les dynamiques du monde musical à un regard critique sur le monde.

# KASKEZUR




**Kaskezur, noise eta rock estiloko laukote baztandarra da. 2008an sortu zen taldea da eta orotara 8 disko atera ditu. Azkena joan den urtean argitaratu zuten "Deus" izenekoa UsoPop Diskak zigilupean. Noise/Rock estilo zaleentzat, ez huts egitekoa !**
**Phillipe Santamariak (bateria), Ainara Ibarrak (baxua), Jon Mindegiak (gitarra, ahotsa) eta Iñigo Belzunegik (gitarra, ahotsa) osatzen dute Kaskezur taldea.**

Kaskezur est un groupe de quatre musiciens du Baztan, jouant un style noise et de rock. Formé en 2008, le groupe a depuis sorti 8 albums. Le dernier, intitulé Deus, a été publié l'année dernière sous le label UsoPop Diskak. Les musiciens transmettent une bonne énergie lors de leurs concerts. Il est évident qu'ils prennent du plaisir à jouer, et ce plaisir se diffuse facilement parmi le public. Pour les fans de noise/rock, c'est un incontournable !

# XSAKARA

**Xsakara raplari bermeotar gaztea etorriko zaigu EHZren oholtzara publikoaren mugiaraztera. Nerabezaroan rap musika estiloa ezagutu eta 2013an bere lehen taldea sortu zuen lagun batzuekin bidea bere kabuz segitu aitzin. Euskal musikagintza aberasten du bere estiloarekin baita bere letra introspektiboekin ere, emozioz eta bizitzari buruzko hausnarketa sakonez beteta.**

Xsakara, jeune artiste de Bermeo, viendra faire bouger le public d'EHZ. Il enrichit le répertoire musical basque par son style mais aussi par ses paroles introspectives, pleines d'émotion et de réflexion profonde sur la vie.






# FERMIN MUGURUZA




LARUNBATA 06/28

**ARBERATZE ESZENA 22.00**

**Mundu bira bukatu berri du Fermin Muguruzak. Ikuskizun berezia eta EHZren ekitaldi handia da aurkeztuko duguna. Hamar urte igaro ondotik, Fermin Muguruza itzuliko da festibaleko oholtzara, zazpigarren aldikotz: kontzertu ikaragarria izanen da!**

**Ez du aurkezpenik behar. Berrogei urteko ibilbidean, Fermin Muguruzak benetan markatu du euskal musika eszena. 1980ko hamarkadaren erdialdean Kortatuko abeslari gisa hasi zen, eta ondotik, bere anaia Iñigorekin batera, Negu Gorriak (1990–1996) talde mitikoa sortu zuen. Gero, hainbat disko atera zituen, musika estilo ezberdinak jorratuz – reggae, hip-hop, soul, dub, rock, punk – munduko beste hainbat artistarekin izan lankidetzei esker.**

**Irungo kantariak lotura handia du EHZ festibalarekin, hastapen-hataspenetik. 1992an, Fermin Muguruzak lagundu zuen Piztu elkartea sortzen, Esan Ozenki bere diskoetxe independentearen bidez. Elkarte horrek sortu zuen EHZ festibala 1996an. 1990eko hamarkadan, Esan Ozenki diskoetxea eta haren nazioarteko adarra Gora Herriak, babesleku izan ziren EHZko oholtza zapaldu zuten hainbat talderentzat: Zebda, Banda Bassotti, Anestesia, EH Sukarra, Ruper Ordorika, eta abar.**
**Anoetako azken kontzertuaren ondotik eta nazioarteko bira baten ondotik, Fermin Muguruzak EHZn bi oreneko kontzertua eskaini nahi izan du aurten.**

C'est le grand événement d'EHZ. Dix ans après, Fermin Muguruza est de retour sur la scène du festival, pour un concert qui s'annonce exceptionnel.

On ne présente plus celui qui, en quarante ans de carrière, a véritablement marqué la scène musicale basque. Fermin Muguruza fait ses débuts en tant que chanteur de Kortatu au milieu des années 1980, avant de fonder, avec son frère Iñigo, le groupe mythique Negu Gorriak (1990-1996). Il a ensuite sorti plusieurs albums en explorant divers styles musicaux, – reggae, hip-hop, soul, dub, rock, punk – fruit de ses nombreuses collaborations avec des artistes des autres coins de la planète.

Le chanteur originaire d'Irun est intimement lié au festival EHZ, et ce depuis le début. Dès 1992, Fermin Muguruza a contribué, par le biais de son label indépendant Esan Ozenki, au lancement de l'association Piztu qui fondera le festival en 1996.




Durant les années 90, le label Esan Ozenki, et sa branche internationale Gora Herriak, a été le refuge de nombreux groupes qui ont foulé les scènes du festival : Zebda, Banda Bassotti, Anestesia, EH Sukarra, Ruper Ordorika etc.

Comme un symbole, ce sera la septième fois que Fermin Muguruza se produira sur la scène du festival. Il avait été la tête d'affiche de la première édition d'EHZ à Arrosa en 1996. Après avoir réuni plus de 30 000 spectateurs le week-end dernier au stade Anoeta de Donosti, il offrira **un concert exceptionnel de deux heures.**

LARUNBATA 06/28




## MARTE LASARTE

**Borja Antonen eta Pello Armendarizen proiektua da. Skakeitanen 15 urte partekatu ondoren, berriz ere indarrak batu zituzten 2023an. 2024an zehar "Basamortua" eta "Marte Lasarte" singleak kaleratu dituzte eta taldean bi kide berriren iritsiera ere izan dute: Lore Nekane Billelabeitia eta Alex Alonso.**

Un projet né autour de Borja Anton et Pello Armendariz. Après avoir collaboré ensemble pendant 15 ans, ils se sont de nouveau réunis en 2023. Rejoints par Lore Nekane Billelabeitia et Alex Alonso, l'album « Ez Da Besterik » est paru en 2024.

## 47Soul




**Palestinako musika kolektibo batek "Shamstep" izeneko generoa sortu zuen 2013an, hip-hop, musika elektroniko eta R&Ba Dabke dantza tradizionalaren soinuarekin eta Levanteko Shaa'bi erro-muskikarekin uztartuz.**

Un collectif musical palestinien, a créé le genre "Shamstep" en 2013, mêlant hip-hop, électronique et R&B aux sonorités de la danse folklorique Dabke et aux musiques roots Shaa'bi du Levant.

## NAXKER

**Naxker taldea Atarrabian sortu zen 2022ko udan. Ordutik kontzertuak ematen eta abestiak konposatzen egon dira. 2024ean beraien lehenengo diskoa, Matxenia II, grabatu zuten, irailean kaleratuko zena. Aurten beraien hurrengo diskoa prestatzen ari dira. Naxkerren estiloa garage, pop eta punk nahasketa da.**




Groupe formé à Atarrabia durant l'été 2022. En 2024, ils ont enregistré leur premier album, Matxenia II, qui sortira en septembre. Cette année, ils se préparent à sortir et à présenter leur prochain disque. Le style de Naxker est un mélange de garage, pop et punk.




## MARTA

**MARTA tekno musikaren eta instrumentu akustikoen arteko nahasketa da, bateria eta arrabita batek osaturik. ROOM izeneko beren lehen EPak are urrunago bultzatzen ditu soinu bereziaren mugak. Instrumentazio akustiko eta tekno doinuak finki nahasiz, kantu elektronikoz osaturiko bilduma dantzagarri honek esperientzia minimalista eta progresiboa eskaintzen digu.**

MARTA est la fusion parfaite entre techno et instruments acoustiques, avec violon et batterie. ROOM, leur premier EP, repousse encore plus loin les limites de leur son distinctif. Mélangeant habilement techno et instrumentation acoustique, cette collection de morceaux électroniques dansants offre une expérience progressive.

eta beste hainbat talde...

Inertzia

Voltaire

Galder

IGANDEA 06/30




## AHMED EID & ILYF

**Ahmed Eidek musika tradizio kulturalak eta borroka sozialak uztartzen ditu. Bere lehen diskoa, Aghani Akhira (اخرية أغان / Last Songs), Palestinan eta Berlinen kokatutako fikziozko pertsonaien esperientzietan oinarritzen da. Abestiak ikuspegi antikolonial eta antipatriarkaletik lantzen ditu, grafikoak eta sakonki poetikoak dira.**

Ahmed Eid mêle traditions musicales, culturelles et luttes sociales. Aghani Akhira (اخرية أغان / Last Songs), son premier album, raconte en 7 chansons des expériences réelles de personnages fictifs, entre Palestine et Berlin. Les œuvres, graphiques et profondément poétiques, s'inscrivent dans une perspective anti-coloniale et anti-patriarcale.




## RADIO BYZANCE

**Reggae-Dub Sound Systemen energiak inspiratuta, Radio Byzancek hainbat eraginetatik inspiratzen da. Genero eta kontinenteen arteko bidegurutzean dagoen soinu bat sortzeko. Hirukotearen bozak eta tresna akustikoak ekoizpen elektronikoen gainean jarriz, dena zuzenean remixatuta. Ingelesez edo gaztelaniaz kantatuz, inprobisazioari protagonismoa emanez. 2019an sortu zenetik, Radio Byzancek bere uhin onak publiko guztiei helarazten dizkie.**

En 2014 le groupe réunissait uniquement Rébecca M'Boungou et Arnaus Estor. Ce duo utilisait de nombreux instrument grâce au loopers (guitarre, basse, beatbox). En 2018, la chanteuse fait la connaissance de Gael Fayen, enregistrent la chanson "Kongo" et font une tournée. Depuis, avec le désir d'élargir les perspectives du groupe, le groupe de musique réunit 6 musiciens et proposent une musique soul-jazz, rumba hip hop qui nous met dans une ambiance dansante.

## XIBEROOTS

**XIBEROOTS Euskal Herritik sortu den musika taldea da, euskara bihotzean daramana. Hirugarren diskoa dute: bihotzaren garrasi bat da, bizitzaren, erresistentziaren eta esperantzaren aldarria. Gero eta zalantzazkoagoa den mundu honetan, gerlak, klima-aldaketa eta estatuen jokabideak aztergai hartzen dituzte, reggae doinu indartsuekin eta ospakizun giroarekin uztartuta.**

XIBEROOTS est un groupe de musique d'ici, qui porte la langue basque au cœur de son projet. Leur troisième album est un véritable cri du cœur : une célébration de la vie, de la résistance et de l'espoir. Dans un monde de plus en plus incertain, ils explorent des sujets comme les guerres, le changement climatique et les comportements des États, le tout porté par des sonorités reggae puissantes mêlées à une ambiance festive.






# ERROBI

**ARBERATZE ESZENA 18.45**

IGANDEA 06/30

**Euskal kantagintzako izen mitikoetako bat da Errobi, eta igandean arituko da EHZ festibalean. 1974an sortua, rock progresiboaren garaian, taldeak euskal musikan egiazko iraultza ekarri zuen gitarra elektrikoekin. Donoztiriko Daniel Landart idazle eta poeta engaiatuaren hitzei musika jarri zieten. Haien abestiek landa-eremuko exodoa, euskararen ezagupena, gizarte eta kultura arazoak, turismoaren eragina eta antzeko gaiak lantzen dituzte. 1985ean Agur t'erdi diskoa grabatu ondotik, taldea bereizi zen.**

**Baina Mixel Ducau eta Anje Duhaldek berriz piztu dituzte gitarrak 2024an, taldearen 50. urteurrena ospatzeko. Azaroan, Baionako Lauga gelan sarrera guziak agortu zituzten kontzertu batean. Orain, berriz igoko dira oholtzara EHZ festibalean, ekainaren 29an, igandez, arratsaldeko 18:45ean, belaunaldi guzien plazererako.**



Autre nom mythique de la chanson basque, Errobi jouera le dimanche d'EHZ. Fondé en 1974, dans une décennie marquée par le boom du rock progressif, le groupe de rock a révolutionné la musique basque avec ses riffs de guitare électriques. Ils ont interprété les textes de Daniel Landart, écrivain et poète engagé originaire de Donoztiri . Leurs chansons évoquent l'exode rural, la reconnaissance de l'euskara, les problématiques sociales et culturelles, le tourisme etc. Après avoir enregistré un cinquième et dernier album, Agur t'erdi, en 1985, le groupe s'était définitivement séparé.

Le duo formé par Mixel Ducau et Anje Duhalde a rebranché les guitares en 2024 pour fêter ses 50 ans. En novembre dernier, ils avaient joué à guichets fermés à la salle Lauga de Baiona. Errobi remettra donc le couvert à EHZ, le **dimanche 29 juin à 18.45**, pour le plaisir de toutes les générations.

# IGANDEA 06/30




## TAPIA & LETURIA

**Tapia eta Leturia bueltan dira. Soinujole baten eta panderojole baten konbinazioa baino askoz gehiago dira. 1984tik, lehen aldiz elkartu zirenetik, trikitixaren doinua agertoki posible guztietara eraman dute: txapelketetatik jai eta erromerietara, aretoetatik eta folk eta rock jaialdietatik ere igaroz.**
**Baina, batez ere, triki garaikidearen munduko benetakotasunaren marka erregistratua dira: bi musikari, testuinguru posible guztietara egokitzen dakitenak.**

Tapia et Leturia sont de retour. Depuis 1984, date de leur première rencontre, la mélodie de trikitixa a été portée à toutes les étapes possibles : txapelketak aux festivals en passant également par les salles et les festivals folk et rock. Mais surtout une marque d'authenticité dans l'univers du triki contemporain.

## MARABIYAK

**Proposamen musikal eta eszeniko apurtzaile honetan, Dj Reimyk, Marabiyakeko talde tekniko eta artistikoarekin eta hiru triziklo sound systemekin batera, kaleak iraultzea proposatzen dute, DJ set potente batekin eta remix esklusiboekin.**

Dans cette proposition musicale et scénique révolutionnaire, DJ Reimy, accompagné de l'équipe technique et artistique de Marabiyak ainsi que de trois tricycles sound system, propose de faire vibrer les alentours avec un DJ set puissant et des remixes exclusifs.




## HENGE




**HENGE Manchesterren sortutako taldea da. Rocka, elektronika eta psikodelia nahastuz, beraiek sortutako Cosmic Dross izeneko estilo berezian aritzen dira. Ikuskizun ikusgarri eta antzeztuak eskaintzeagatik dira ezagunak, eta taldeko kideek kolorez beteriko estralurtar pertsonaiak gorpuzten dituzte: Zpor, Goo, Grok eta Nom.**

HENGE est un groupe originaire de Manchester. Ils mêlent rock, électronique et psychédélie dans un style unique qu'ils appellent Cosmic Dross. Connus pour leurs spectacles hauts en couleur, les membres incarnent des personnages extraterrestres : Zpor, Goo, Grok et Nom.




## HOP HOP HOP CREW

**Musika jatorri desberdinetako 5 musikari dira, beren eraginak uztartzen dituztenak Europa ekialdeko musiken konposizioetan, groove leherrarazle eta eztandatsuan. Sailkaezina den musika, baina zalantzarik gabe zoramenezkoa eta poetikoa!**

Ces 5 musiciens, de tous horizons musicaux, marient leurs influences dans des compositions personnelles aux sonorités des musiques d'Europe de l'Est, dans un groove détonnant et explosif. Une musique inclassable mais résolument festive, délirante et poétique !

eta beste hainbat talde...
Gros Coeur
Sarbakul Afrobeat Collective

# IKUSGARRIAK | Spectacles

LARUNBATA | Samedi

## IBAWA KOLEKTIBOA




**“Gaua” proiektua Euskal Herriko historiaren pasarteaz jabetzen da. Erritualetan, elkartzeetan (Akelarre), sorginen historian, Euskal Herriko emakumeen indarrean eta independentzian inspiratu nahi dugu. Dantzarien gorputzek eta ahotsek ingurune berezi bat sortzen dute, eta osatzen duten zirkulu horrek gorputzen adierazpena ahalbidetzen du.**

Le projet « Gaua » est l’appropriation de ce passage de l’histoire du Pays Basque. Lier l’Histoire à ce que nous vivons aujourd’hui, dans notre génération. IBAWA amène la danse contemporaine sur la place publique. Les corps et voix des danseurs instaurent un environnement singulier, dans ce cercle qui se crée et qui permet aux corps de s’exprimer.

## NOWHERE CIRCUS




**Bidaia une berean hasten duten bi abenturazaleren istorioan inspiratua da ikuskizuna. Batek Tibetera iritsi behar duen martxa bati ekiten dion bitartean, besteak ozeano atlantikoa zeharkatzen du. Bi hilabete beranduago, bi ibilbide hauek gurutzatu egiten dira bakarra osatzeko, bidaiaren helmuga aldatuz.**

Inspiré par l’histoire de deux aventuriers dont le voyage débute au même moment. Tandis que l’un se lance dans une marche devant atteindre le Tibet, l’une traverse l’océan Atlantique. Deux mois plus tard, ces deux trajectoires se croisent pour n’en former qu’une, changeant la destination du voyage.

## ALTXALILI




**Altxalili kolektiboa Atharratzeko Bekat'Uros egunean sortu zen 2022an. Baserri gunean sortu edota bizi diren queer pertsonek osatzen dute. Drag performantziatik, genero identitatea, sexualitatea, harremantzea, botere harremana eta beste gai anitz jorratzen dituen kabaretea da Altxalili Show. Bazterrak inarrosiz, Euskal Herrian LGBTQIA+ komunitatea ikusgarriagoa izatea da bere xedea.**

Le collectif Altxalili est né à Atharratze en 2022. Il est composé de personnes queer du milieu rural. Le collectif veut donner une plus grande visibilité au personne LGBTQIA+ via son cabaret Atxalili Show.

## CIE C’HOARI




**Fest-Nozeko esperientzia biziz hasten dira bikotea sortzen, dantza pausoei eta, batez ere, dantzariek elkarren artean duten harremanari erreparatuz. . Gaualdi horietako jai giro eta lagunkoiak ikusgarriaren haria sortu die bi dantzariei.**

C’est en vivant l’expérience du Fest-Noz qu’elles commencent à créer le duo, en observant les pas de danse et surtout la relation des danseurs entre eux. L’énergie exprimée s’invite en elles. L’ambiance festive et conviviale de ces soirées insuffle aux deux danseuses le fil conducteur de la pièce.

eta beste hainbat...

**Mexikortxo (r) band** Izan
**Xatiro** Herri kirola & bertso
**Itzuli konpania** Dizkobolo
Ithaka **Buuzbu**

IGANDEA | Dimanche

## QUEER FALAFEL

**Queer Falafel Libanoko generofuck bat da. "Europako arazoak" zeintzuk diren gogorarazteko eta zure zuritasuna zein hauskorra den erakusteko heldu zaigu. Kolonialismo eurozentrikoaren nagusitasuna eta iragana/oraina salatzeko prest, bisualak, zuzeneko musika eta performantzia gurutzatzen ditu, ematen zaizkizun pribilegioen gaineko diskriminazioak proiektatuz. Zuen espiritu neo-liberalak haustera dator.**




Queer Falafel est un genderfuck libanais errant autour du globe. Toujours présent pour vous rappeler quels sont vos « problèmes du premier monde », et vous montrer combien fragile est votre blancheur. Prêt à dénoncer la suprématie blanche et le passé/ présent du colonialisme eurocentrique. Ce sont des visuels, de la musique live et de la performance qui se croisent, projetant les discriminations imposées sur les privilèges qui vous sont accordés.

## OONA DOHERTY




**Hope Hunt : itxaropenaren ehiza. Dantza sozialaren eta "antzerki fisikoaren" arteko antzezlana. Oona Doherty koreografo konprometitua da, pribilegio sozial edo kulturalik gabe bizi direnei entzuten duena. Bakarrik agertokian, Belfasteko haur horrek gizonezko gazteen itxaropen eta etorkizun nahia dantzatzen du, baita haien jarrera eta keinuak ere, askotan probokatzaileak direnak. Amorru eta arintasun artean, auzoetako kaleetan ezagutzera joan den populazio baten sentsazioetara lerratzen da, oinezkoentzako guneen glamourretik urrun.**

"Hope Hunt and the Ascension into Lazarus"" évolue entre les frontières du théâtre physique, de la proclamation sociale et de la danse. L'interprète se transforme d'un personnage à l'autre. Par le biais de la parole, du mouvement et des sons, nous sommes ballottés à travers les représentations existantes de la masculinité, de la morale et de la nostalgie. La performeuse emmène le public sur les chemins oubliés de sa mémoire.

## ANE LINDANE




**Ane Lindane umoregile bilbotarrak bere bakarrizketetan jorratzen dituen gaiak orotarikoak dira, hala nola feminismoa, antifaxismoa, euskara, klasismoa... Publiko guztientzat egokia ez den umore punki eta garratza.**

L'humoriste bilbotar Ane Lindane aborde dans ses monologues des thèmes aussi variés que le féminisme, l'antifascisme, la langue basque, le classisme... Un humour pointu et amer qui ne plaira pas à tout le monde.

IGANDEA | Dimanche

## DUGUNA DANTZA TALDEA




**Iruñea dantza tradizio handiko hiria da . XVI. nendetik gaur eguneraino ia etenik gabe dantzatu dira hango eta hemengo dantzak Iruñeko festetan. Errepertorio horren bi adibide erakutsiko ditugu. Sanferminetako trokeo-dantzak eta soka-dantza.**

Iruñea a été et est une ville de grande tradition de danse. Depuis le XVI.ème siècle jusqu'à nos jours, les danseurs ont dansé sans relâche pendant les fêtes de Pampelune. Voici deux exemples de ce répertoire. Danses de San Fermin et soka-dantza.

## TOR ETA TXOBORRO




**Tor eta Txoborro magoek elkarlanean magia saio erabat berritzailea sortu dute. Unibertso magiko bat, antzerkia eta magia bilatuz: dena logikatik aldentzen da. Kartak, agerpenak, desagerpenak eta beste balentria artean ez zara damutuko!**

Les magiciens Tor et Txoborro ont créé ensemble une séance de magie totalement innovante. Un univers magique, à la recherche du théâtre et de la magie, tout s'écarte de la logique. Entre les cartes, les apparitions, les disparitions et autres prouesses, ils osent avec un grand évapisme.

eta beste hainbat...

**Kalume txaranga**

**Gaiteroak & Ziganteak**

**Gaitistaneko Orkestra**

**Bacano Banda**

**Sarbakul Afrobeat Collective**

# OSTIRALA
## 2025.06.27

**PLAZA**
- PAPA CUMBIA 18:00 - 20:00
- ZETKIN 20:00 - 21:00

**ARBERATZE**
- POLYLOGUE FROM SILA 21:00 - 21:45
- AUHEN 22:30 - 23:15
- MASKAK 00:15 - 01:15
- TXAPTRAX 02:00 - 03:00

**ZILHEKOA**
- PANGEA POP 20:15 - 21:00
- BENGO 21:45 - 22:30
- MISS BEE & THE BULLFROGS 23:15 - 00:00
- W!ZARD 01:15 - 02:00
- ACIDULANT 03:00 - 04:00

# LARUNBATA
## 2025.06.28

**PLAZA**
- MEXIKORTXO (R) BAND 09:30 - 10:30
- HERRI KIROLA & BERTSO 10:30 - 11:30
- MEXIKORTXO (R) BAND 11:30 - 12:15
- NOWHERE CIRCUS 12:15 - 13:15
- IZAN 13:15 - 14:15
- CIE C'HOARI 14:15 - 15:00
- XATIRO 15:00 - 16:00
- IBAWA 16:00 - 16:30
- DIZKOBOLO 16:30 - 17:15
- ITHAKA 17:15 - 18:15
- DIZKOBOLO 18:15 - 19:00
- BUUZBU 19:00 - 20:00

**ELIZA**
- ITZULI KONPANIA 12:30 - 13:30
- ALTXALILI 15:15 - 16:15
- QUEER FALAFEL 19:00 - 20:00

**ARBERATZE**
- OLAIA INZIARTE 18:30 - 19:15
- 47 SOUL 20:00 - 21:00
- FERMIN MUGURUZA 22:00 - 00:00
- MARTE LASARTE 00:45 - 01:30
- MARTA 02:15 - 03:15

**ZILHEKOA**
- NAXKER 17:45 - 18:30
- KASKEZUR 19:15 - 20:00
- XSAKARA 21:00 - 21:45
- GALDER 00:00 - 00:45
- INERTZIA 01:30 - 02:15
- VOLTAIRE 03:15 - 04:00

# IGANDEA
## 2025.06.29

**PLAZA**
- ZIGANTE GAITERO 10:00 - 10:45
- TNT 10:45 - 11:45
- GAITISTANEKO ORKESTRA 11:45 - 13:00
- DUGUNA 13:00 - 13:45
- BACANO BANDA 13:45 - 14:45
- OONA DOHERTY 14:45 - 16:00
- AHMED EID 16:00 - 17:00
- KALUME 17:00 - 18:00
- SARBAKUL AFROBEAT COLLECTIVE 18:00 - 19:00
- MARABIYAK 19:00 - 20:00

**ELIZA**
- ANE LINDANE 11:15 - 12:15
- QUEER FALAFEL 13:45 - 14:45

**ARBERATZE**
- ZINKIO KARPAN: LA COMPAGNIE DIAGONALE 12:00 - 12:15
- ERROBI 18:45 - 19:45
- TAPIA TA LETURIA 20:30 - 21:30
- XIBEROOTS 22:15 - 23:15
- HENGE 00:00 - 01:00

**ZILHEKOA**
- HOP HOP HOP CREW 18:00 - 18:45
- MARABIYAK 19:45 - 20:30
- RADIO BYZANCE 21:30 - 22:15
- GROS COEUR 23:15 - 00:00

# HITZALDIAK
# Conférences

ARBERATZEKO ESKOLAN | Ecole d'Arberatze

**LARUNBATA | Samedi**

## 10:00

**Kapitalaren aitzinean, lurra defendatu**

*Face au capital, défendons la terre*

***Ostia sarea***
***Aroztegiko Elkartasun Komitea***
***Guggenheim Urdaibai Stop***

## 12:00

**Landareen kontsultategia**

*Tout savoir des plantes*

***Jakoba Errekondo (agronomo eta paisajista)***

## 15:00

**'Hetero' liburuko «Sehaska-kanta (2025-1975)» emanaldi musikatua**

***Uxue Alberdi eta Eñaut Elorrieta***

## 15:30

**Berrarmatzea, gerra inperialista eta internaziona-lismoaren beharra**

*La nécessité de l'internationalisme face aux politiaues de réarmement et à la guerre impérialiste*

***Askapena erakunde internazionalista***

## 11:30

**Diskurtso eta errepresio faxistak borrokatu**

*Lutter contre les discours et la répression fascistes*

***Jenofa Berhokoirigoin (ARGIA)***
***Donostiako militante antifaxistak***
***Ipar Euskal Herriko sare antifaxista***

## 14:30

**Infiltrazioak eta borroka politikoaren kriminalizazioa**

*Infiltrations et criminalisation de la lutte politique*

***Distrito 14 kolektiboko kide ohiak beste kide batzuk***

## 15:30

**Euskal Selekzioa: kiroletik herrigintzara**

*Euskal Selekzioa: du sport à la construction du Pays Basque*

***Irati Zabala (eskalada)***
***Ainhoa Uskola (eskalada)***
***Ellande Alfaro (esku huska)***
***Ainhoa Etxenike (arrauna)***



# HITZALDIAK
# Conférences

ARBERATZEKO ESKOLAN | Ecole d'Arberatze

## IGANDEA | Dimanche

**10:00**

***Palestinarren genozidioa: arte politikoaren beharra eta indarra***
*Génocide du peuple palestinien : la nécessité et la force de l'art politique*
***Ahmed Eid***
***Queer Falafel***

**12:00**

**Sorgin-ehizaren deseraikuntza**
*La déconstruction du récit de la chasse aux sorcières*
***Asisko Urmeneta***

**15:00**

**Herri Mugimenduaren eraginkortasun politikoaz. Tailerra** *[Pas de traduction simultanée]*
***Joxemi Zumalabe Fundazioa***

**11:30**

**Euskalduna naiz eta larri nago**
*Table ronde sur la situation urgente de la langue basque*

***Ekhi Erremundegi (BERRIA)***
***Intza Gurrutxaga (EHE)***
***Mattin Irigoien (Zabalik)***

**14:00**

**Osasunaren izenean, noraino? Covid-19 pandemiaren kudeaketa autoritarioaz**
*Au nom de la santé, quoi qu'il en coûte ? Retour sur la gestion autoritaire de la crise sanitaire Covid-19*
***Angel Bidaurrazaga (Medikuntzan doktorea)***
***beste kide batzuk***

Larunbat & igandean
(egun osoan)
**MARRAZKIRRI**
**Oztibarreko erakusketa herrikoia**
**«2057» gaiaz**



# HAURREN XOKOA
## Espace enfants



**LARUNBATA** 28/06 Samedi → **IGANDEA** 29/06 Dimanche

| LARUNBATA 28/06 Samedi | IGANDEA 29/06 Dimanche |
|---|---|
| **11:15-12:15**<br>Tricking tailerra & emanaldia<br>Atelier Tricking & spectacle | **11:00-12:30**<br>Mantangorri esku-lan tailerrak (Berriaren eskutik)<br>Ateliers créatifs Mantangorri |
| **14:00-16:00**<br>Gaia elkartea: herri kirolak<br>Jeux traditionnels | **14:00-15:00**<br>Pontx Pailazoa |
| **09:30-18:30** | Marrazki, mandala, makillatzea, puzgarriak, murala...<br>Jeux gonflables, coloriages, dessin, maquillage... |



# ZIKIROA

**Usaian bezala, igande eguerdian, karpa azpian, EHZko zikiro tradizionala izanen da Euskal Herriko Laborantxa Ganbararen (EHLG) eskutik eta txaranga batek animaturik. Bertan, Ipar Euskal Herriko laborariek laborantza herrikoian ekoizturiko produktuak dastaraziko dituzte. Igandean beraz, ez ahantz goizean goiz jitea lekuen erreserbatzeko!**

Comme chaque année, ***Euskal Herriko Laborantxa Ganbara (EHLG)*** organise le traditionnel Zikiro (méchoui) sous chapiteau. En s'implantant dans ce cadre rural en Pays Basque intérieur, EHZ ne pouvait faire autrement que de faire appel aux paysans, éleveurs, et producteurs locaux pour offrir un service de restauration de qualité aux festivaliers, avec des produits issus de l'agriculture paysanne.

# INFO PRAKTIKOAK | Info pratiques

**Akanpalekua urririk festibalarientzat**
*Camping gratuit pour les festivaliers*

**Furgonetentzako akanpaleku berezia**
*Un camping réservé aux vans et camping-cars*

**Berinezko botilarik ez gunean, ezta akanpalekuan ere**
*Le verre ne sera accepté ni sur le camping, ni sur le site*

**Sartzea urririk 11 urtetik beherakoentzat**
*Entrée gratuite pour les moins de 11 ans*

**Ordainketak: euskoz, euroz, banku txartelarekin**
*Moyens de paiement : eusko, euro, CB*

**Animaliarik ez da onartuko gunean, ezta akanpalekuan ere**
*Pas d'animaux sur site, ni sur le camping*

## AUTOBUSAK
## AUTOBUS

**BAIONA**

**ATHARRATZE**

**BAIGORRI**

Erreserbatzeko | Réserver : ehz.eus

EGUNEKO TXARTELA
3,20€
PASS ÉVÉNEMENT




Info gunea
Komunak
Gurutze Gorria
Sartzea
Mertxa
Janari
Prebentzio
Aparkalekua
Ttanttoak
Ostatua
Dutxak
Autobusak

ARBERATZE -ZILHEKOA
EKAINAK 27-28-29

# IZAN LAGUNTZAILE! Deviens bénévole !

**Ehundaka laguntzaile eta militantek EHZ zutik jartzen dute, AUZOLANA, ELKARLANA eta ENGAIAMENDU MILITANTEA oinarri. Ostatua, zirkulazioa, janaria, sekuritatea, brigada berdea... urtero bezala, 500 laguntzaile lan postu ezberdinetan txandakatuko dira. Denen beharra dugu. Motibatu lagunak eta izena eman ehz.eus webgunean aurkituko duzuen "IZAN LAGUNTZAILE" atalean. Baina EHZ ez da bakarrik hiru egunetan mugatzen. Gunearen MUNTAKETA ekainaren 18an hasiko da eta denei idekia da.**

Le festival EHZ doit son succès aux centaines de bénévoles qui chaque année **depuis 27 ans** viennent prêter main forte avant, pendant et après l'événement. **L'ENTRAIDE, le COLLECTIF et l'engagement MILITANT** sont les valeurs cardinales sur lesquels se fonde EHZ. Bar, circulation, restauration, sécurité, brigade verte... comme tous les ans, **500 bénévoles** sont indispensables pour organiser EHZ. Les inscriptions se font sur le site **ehz.eus**, dans la rubrique **"BÉNÉVOLES"**. Le festival ne se limite pas aux trois jours, **le montage commencera le 18 juin** et est ouvert à tous.



# ERASORIK EZ!

# NON AUX AGRESSIONS!

**Aurten ere EHZ gune segurua izateko ardura har dezagun, eraso homofobo, matxista eta arrazisten kontrako protokolo bat izanen da festibalean.**

**Cette année aussi, il est de la responsabilité de tou.te.s que EHZ soit un lieu sûr. Contre tout comportement machiste, homophobe et raciste, un protocole sera mis en place.**